

Bankuaren arrisku profila **bere horretan mantendu** dio EBZ-k

Kutxabankek kapital eskakizun txikiena duen bankua izaten jarraitzen du SREP azterketaren arabera

- **2023ko kapital eskakizun bera izango du 2024. urtean**
- **Arrisku potentzialak estaltzeko kapital-eskakizun gehigarriak % 1,20an jarraitzen du, azken sei urteetan bezala, eta Europako onenetakoa da**

2023ko azaroaren 30ean. Kutxabankek Espainiako finantza-sisteman kapital eskakizun txikiena duen bankua eta **Europa osoan arrisku-profil onenetakoa** duen bankuetako bat izaten jarraitzen du, Europako Banku Zentralak finantza-erakundeei bidalitako komunikazioaren arabera.

Kutxabankek % 1,20ko kapital-eskakizuna bete beharko du 2024an, azken sei urteetako bera. Maila hau 2023an ebaluatutako Espainiako finantza-erakundeen artean txikiena da eta Europako hirugarrena.

Gainera, Kutxabankek % **11,70tik** gorako **Kaudimen Ratio Osoa** bete beharko du eta % **7,675etik** gorako **CET1** kalitate goreneko kapitala.

Kutxabanken kaudimen ratioek Espainiako finantza sistemaren buruan jarraitzen dute. Bere **CET1 ratioa** eta **Kaudimen Ratio Osoa** phased-in mailan % 17,5etik gora daude, ikuskatzaileak eskatzen duena CET1en bikoitza baino gehiago. Kapital-ratio horiek azaldutako eskakizunak aise gainditzen dituzte, beraz dibidenduen edo ordainsari aldakorren banaketan ez da mugarik ezartzen.

GUTXIENGO ESKAKIZUNAK		
MAILA	CET1	KAUDIMEN OSOA
1 ZUTABEA	% 4,50	% 8,00
2 ZUTABEA (P2R)	% 0,675	% 1,20
Kontserbazio koltxoia	% 2,50%	% 2,50
Beste koltxoiak	% 0,00%	% 0,00
ESKAKIZUNAK GUZTIRA	% 7,675	% 11,70

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian,



kutxabank

Komunikazio zuzendaritza

● **Prentsa-oharra**

Madriren eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.
